

DENA ONDO LOTUTA IZATEAREN LASAITASUNA

Bizitza errazteko **irtenbide erabilgarrien** berri ematea gustatzen zaigu LABORAL Kutxan.

Horregatik, hauxe azaldu nahi dizugu gaur: **TESTAMENTUA EGITEA ZERGATIK DEN BETI IDEIA ONA**, adina eta osasun-egoera edozein izanda ere.

Zergatik komeni da testamentua egitea?

Testamenturik ezean, erkidegoko **Kode Zibilaren arabera banatzen dira ondasunak; eskuarki, ordena honi jarraikiz:**

- 1. Ondorengo ahaideak** (seme-alabak eta bilobak).
- 2. Bikotekidea edo aurreko ahaideak.** Bizilekuaren arabera, bikotekidea bigarren lekuan egongo da, edo hirugarrenean, aurreko ahaideen (guraoen eta aitona-amonen) ondoren.
- 3. 4. mailarainoko ahaideak** (osaba-izebak, lehengusu-lehengusinak, ilobak eta abar).
- 4. Horiek guztiak ezean, zure erkidegoko Administrazio Orokorra.**

Hala, bizi zaren erkidegoa zein den, ondorengo ahaiderik ezean, **bikotekidea ondasunen banaketatik kanpo gera liteke, aurreko ahaideak egonez gero.**

Gainera, **izatezko bikotekidea ez da ezkontidetzat hartzen erkidego batzuetan, eta, beraz, banaketatik kanpo geratzen da.**

Testamentua eginez, ondasunak zuk nahi duzunarentzat izango direla ziurtatuko duzu, zure erkidegoko Kode Zibilak zehaztutako mugen barruan.

Noiz komeni da testamentua berrikustea eta/edo aldatzea?

Egoera eta gertaera garrantzitsuen aurrean —ezkontzea, banantzea, dibortziaztea, seme-alabak izatea, alargun gelditzea eta abar—, **hobe da testamentua berrikustea eta oraindik zure nahiekin bat datorren egiaztatzea.**

Bereziki gomendagarria da testamentua berrikustea eta notariotzan aholkularitza eskatzea, bigarren aldiz ezkondukoan edo izatezko bikotea osatutakoan, batez ere aldeetako batek edo biek ondorengo ahaideak badituzte.

Zure bizitzan aldaketa garrantzitsu bat gertatzen denean, testamentua berrikustea komeni da.

Erabateko askatasuna dago herentzia nori utzi erabakitzeke?

Normalean, bi zatitan bereizten da herentzia:

- 1. XEDAPEN ASKEKO ZATIA.** Zuk nahi duzunari utz diezaiokenezun zatia da.
- 2. SENIPARTEA.** Jaraunsle legitimo edo nahitaezkoei utzi beharreko zatia da, eta erkidego bakoitzeko Kode Zibilak xedatzen duen moduan eta zenbatekoan banatzen da.

Nafarroan, adibidez, ez dago SENIPARTErik, eta dena da xedapen askekoa.

Oro har, herentziaren zati bat behintzat beti banatu ahal izango diozu nahi duzunari.

Zer ondasunek osatzen dute SENIPARTEA?

Oro har, SENIPARTEA dagoen lurraldeetan, honela banatzen dira ondasunak:

EZ DIRA SENIPARTEkoak:

- Bizitza-aseguruak.
- Pentsio- edo aurreikuspen-planak.

Nahi duzunari utz diezazkiokezu, onuradun bat izendatuta.

BADIRA SENIPARTEkoak:

- Etxebizitzak eta lokalak.
- Gordailuak, inbertsio-funtsak eta akzioak.
- Bitxiak, autoak eta gainerako ondasun eta eskubideak.

Kode Zibilak xedatutakoaren arabera banatzen dira.

Bizitza-aseguruak eta aurreikuspen- edo pentsio-planak xedapen askeko ondasunak izaten dira.

Badago seme-alabak edo jaraunsle legitimoak herentziarik gabe uzterik?

Orokorrean, legeak egoera jakin batzua nola indarkeria edo tratu txarrak daudenean edo norbaiten bizitzaren aurkako atentatua egiten denean.

Dena dela, **Euskal Autonomia Erkidegoko BEREIZKETAAREN LEGEAK testamentutik at uzteko.** Adibidez, zure ondorengo ahaideetako bat kanpoan utz dezakezu bizi zaren etxearen banaketan.



Euskal Autonomia Erkidegoan, Bereizketa Legeak aukera ematen du nahitaezko jaraunsleak herentziaren banaketatik kanpo uzteko.

Non egiten edo aldatzen da testamentua eta zenbat kostatzen da?

Oso erraza da: nahikoa da zure herriko edo hiriko notariotzan hitzordua eskatzea.

Bertan azalduko dizute zure herentziako zein zati den xedapen askekoa, edo izatezko bikotekidea ezkontidearen eskubide berberak dituen, eta bertan lagunduko dizute testamentua idazten, zure egoera pertsonala kontuan hartuta.

Prezioa desberdina izan badaiteke ere testamentu-motaren eta udalerriaren arabera, **prezio estandarra 45-70 € bitartekoa da.**

Testamentua egiteko orduan, profesional batek soilik eman diezazuke aholkua gehien komeni zaizunari buruz.

Testamentua egiteak lasai bizitzeko aukera ematen dizu, zure ondasunak —edo zure erabakimenaren mende daudenak behintzat— zuk nahi duzunarentzat izango direla jakinda.

Informazio gehiago nahi baduzu, hurbilen duzun notariotzan hitzordua eskatzea gomendatzen dizugu.